

ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ZENTROEN EGIAZTAPEN INSTITUZIONALA ETA UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZA OFIZIALAK EZARTZEKO, JARRAITZEKO, ALDATZEKO, KENTZEKO ETA HAIEN EGIAZTAPENA BERRITZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA EGITEKO

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua haxe ezartzen du: “1. Lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta hori sustatu beharko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bitartez; eta bertan jasoko da zer iritzi duten datorren arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkartasun handieneko erakundeek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak)”.

Aurrekoa betetzeko, dokumentu hau egiten da Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzeko, aldez aurreko kontsulta publikoa gauzatzeko Nafarroako Foru Komunitateko zentroen egiaztapen instituzionala eta unibertsitateko irakaskuntza ofizialak ezartzeko, jarraitzeko, aldatzeko, kentzeko eta haien egiaztapena berritzeko prozedura arautzen dituen foru dekretuaren proiektua egiteari buruz.

Aurrekariak

Ordenamendu juridikoak administrazioak esku hartzeko sistema bat aurreikusten du, Estatu osoan balioa duten unibertsitate titulu ofizialak lortzeko irakaskuntzak ezartzeko, jarraitzeko, aldatzeko, kentzeko eta haien egiaztapena berritzeko. Gaur egun, unibertsitateko irakaskuntzen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuak arautzen ditu prozedura horiek.

Era berean, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu eta baimentzeari eta unibertsitate-zentroen egiaztapen instituzionalari buruzko uztailaren 27ko 640/2021 Errege Dekretuak barnean hartzen ditu unibertsitate-zentroek egiaztapen instituzionala lortzeko bete behar dituzten baldintzak; egiaztapen instituzional horrek berekin dakar bertako unibertsitate titulu ofizial guztien egiaztapena berritzea.

Unibertsitateko titulazioei dagokienez, bi arauen helburua da unibertsitate komunitatearen eta gizarte osoaren konfiantza sendotzea unibertsitate sistema osoko eskaintza akademikoaren kalitatea bermatzeko ezarritako prozeduretan. Gainera, adierazten dute zer esku-hartze gauzatu behar duten autonomia erkidegoek, beren eskumenak baliatuz, beren lurralde eremuko unibertsitate programazioa eta titulazio ofizialen mapa arautzeko, beren araudiak xedatzen duen moduan.

Nafarroako Foru Komunitatean titulazioak ezartzeko baimena emateko prozedura, gaur egun, honako hauek arautzen dute: 298/1998 Foru Dekretua, urriaren 13koa, Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitateko zentroak sortu edo onartzeko eta goi mailako ikasketak baimentzeko prozedura ezartzen duena; eta 114/2009 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa, Nafarroako Gobernuari prozedura ezartzen diona Nafarroako Unibertsitate Publikoaren unibertsitate ikasketa ofizialen ezarpenerako baimena eman dezan, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruan. Espainiako unibertsitateko irakaskuntza ofizialen antolamenduan izandako aldaketen ondorioz, beharrezkoa da arau berri bat, arestian aipatutako errege dekretuetan ezarritako prozeduretara egokituko dena. Era berean, komenigarria da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitate tituluak ezartzeko erregulazioa arau bakar batean jasotzea eta arau hori ez izatea lurraldean unibertsitateen sorrera eta ezarpena arautu behar dituen.

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Dekretu berriaren xedea da irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretua onestearekin batera sartutako berrikuntzak integratzea, ikasketa planak egiaztatzeko prozedura hasi aurreko premiari eta bideragarritasun akademiko eta sozialari buruzko nahitaezko txostenari dagokionez, bai eta ikasketa planak aldatzeko eta tituluen egiaztapena berritzeko prozedurari dagokionez ere.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretua onesteko, unibertsitateko irakaskuntzak ezartzeko, aldatzeko, iraungitzeko eta haien egiaztapena berritzeko prozedurak egokitu behar dira arau horrek Nafarroako Foru Komunitatean ezartzen dituen eskakizun berrietara.

c) Arauaren helburuak.

Dekretuaren helburua da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitateko irakaskuntza ofizialak ezartzeko, aldatzeko, iraungitzeko eta haien egiaztapena berritzeko prozedurak arautzea.

d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez

direnak).

Proposatzen den dekretuaren asmoa da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitateko irakaskuntza ofizialak ezartzeko, aldatzeko, iraungitzeko eta haien egiaztapena berritzeko espedienteen izapidetzea sistematizatzea eta antolatzea. Hau da, dekretu horrek zorrotz arautzen ditu ikasketak antolatzeko eta programazioa gauzatzeko behar diren prozedura alderdiak. Ez da bestelako alternatibarik planteatzen.